

## Ostalaritza laguntzeko berehalako neurriak hartzeko mozioa

Bizi dugun egoera kontuan hartuta, ezinbestekoa da, besteak beste, sektore ekonomikoei zuzendutako babes eta suspertze neurriak proposatzea eta aplikatzea. Ostalaritza da COVID19aren ondorioz kaltetuenetakoa den sektore ekonomikoetako bat, eta, beraz, hauek lagundu eta suspertzeko ezinbestekoa deritzogu babes neurriak aplikatzeari.

Jakin badakigu, pandemiak neurri murriztaile ugari ekarri dizkigula; COVID 19aren hedapena galaraztea helburu duten neurriak, hain zuzen. Guztion osasunak behar du izan lehentasun; osasunik gabe ez dago ekonomiari. Baina, neurri murriztaileekin batera, sektore kaltetuenak babesteko eta laguntzeko neurriak aplikatu behar dira. Neurri murriztaileekin, soilik, ez baitiogu arazoari irtenbidea emango. Pandemia honi eta honek sortzen dituen ondorio sozial, sanitario eta ekonomikoei aurre egiteko baliabideak eta bitartekoak jartzea ezinbestekoa da.

Lasarte-Orian, gure udalerrian, sektore ekonomiko behinena bigarren sektorea da. Beraz, pandemia egoera honek sortu dizkien gabezia eta arazoei aurre egiteko babes eta suspertze neurriak aplikatu behar dira.

Horregatik guztiagatik, Lasarte-Oria EH Bildu Udal Taldeak honako hau eskatzen dio Udal Batzarrari:

1. Irisgarritasun unibertsaleko arauak aldi baterako berrikustea, gure kale eta plazetan "fatxadari itsatsitako" terrazak sartzeko.
2. Obra-lizentzia emateko eta jarduera aldatzeko prozesuak azkartzea, establezimenduak normaltasun berrira egokitzeko.
3. Jarduera-lizentziak: jarduera-lizentzien iraungipena aldi baterako etetea (6 hilabete jarduerarik gabe egoterakoan jarduera-lizentzia iraungi egiten da, epe hau bertan behera uztea eskatzen dute).
4. Sektoreko lan-mahai osatzea inplikaturako agenteekin: Udal Gobernua, alderdi politikoak, eragile sindikalak eta herriko ostalari, merkatari eta zerbitzu pertsonaletako kideak.

*Lasarte-Oria EH Bildu  
Lasarte-Orian, 2020ko azaroaren 4an.*

